

Maddi Aiestaran Iparragirre

B maila • Aipamena



Orri zurian murgildu eta berriz bizitzen hastea. Horixe da idaztea. Hizki artean hegan egiteko gaitasuna. Pertsonaien azalean sartu, eta inguruko guztia ahaztea edota inguruan dugun hori eraldatzea. Horra hor eskuartearen duzun ipuin honen abiapuntua. Gizarte "koadrikulatu" honen aurreiritzien menpe bizi izan den eta oraindik ere bizi den kolektibo batengana gerturatu naiz, eta irudimena lagun, aurreiritzi faltsuetatik ihes egiteko gonbita egiten dut, poliki-poliki, gudan horrenbeste agintzen duen gizarte zurrin hau eraldatzea lortuko dugunaren esperantzan...

ZORAGARRIA ZARA

Eskerrik asko! Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, sari hau eman didazuen guztioi. Pozez zorutzen nago. Ezinezkoa zait hitzekin adieraztea zeinen kontent sentitzen naizen une zoragarri honetan; ezinezkoa zait une gogoangarri honetan barruan sentitzen dudana guztia zuei helaraztea. Baina ziur nago aurpegian antzemango didazuela pozik eta erabat hunkituta nagoela, sari handi hau lortu dudala sinetsi ezinda. Ametsik ederrenean ere ez bainuen honelako lorpen bat irudikatuko.

Amets batean bezala nago ni ere, bai, amets zoragarri batean murgilduta nagoela iruditzen zait. Publikoaren txalo-zaparradaren burrunba dator nire belarrietara; zutik jarri nahi dut, beraiek bezala, eta barnean dudana indar guztiarekin txalo egin nahi dut, baina ez dut belaunetan indarrik, aztoratuegi bainago. Hortxe ikusten zaitut, dotore baino dotoreago, Holiwoodeko aktore handien pare. Harro nago zutaz, seme: aktore onenaren urrezko maskorra lortu duzulako, unibertsitateko titulu bat lortzeko gai izan zarelako, zure bizitza aldapatsu bezain zoriontsuko ahalegin etengabeak fruituak eman dituelako, gizarte lehiakor eta zital honi lezio ederra eman diozulako, baina, guztiaren gainetik, zoragarria zarelako.

Orain dela 37 urte etorri nintzen mundu honetara, kromosoma bat gehiagorekin etorri ere. Geroztik, gogor borrokatu dut, gizarteari erakusteko berezi egiten nauen kromosoma hau ez dela oztopo izan bizitzan trebetasunez aurrera egiteko. Egunez egun irabazten joan naizen borroka bat izan da nirea. Eta, gaur, pena merezi izan duelakoan nago, munduari erakutsi baitiot sinetsiz gero guztia lor daitekeela. Agerian utzi dut ni bezalako pertsonak ez garela desgaituak, gaitasunez jositako pertsonak baizik. Gaur eman didazuen sari honek balio beza gizarteari begiak irekitzeko eta behingoz sinestarazteko gurea ez dela gaixotasun bat, ez dela errukia eragiten duen zerbait.

Pediatrak ere erruki-begiekin begiratu zigun udaberriko egun eguzkitsu hartan; garunean iltzatuta gelditu zitzaidan, betiko, begirada errukior hura. 1980ko martxoaren 22a zen. Eguerdia. Eguzkiak bete-betea jotzen zuen ospitaleko gelako leiho txikian. Ni ere euforia bete-betea nengoen; laino batean egongo banintz bezala sentitzen nintzen. Pozarren. Magikoa izan baitzen zure begi txikiek eta nireek lehen aldiz elkar gurutzatu zuten unea; txinpartatsua,

intentsitate handikoa, zoragarria. Nire barneko zerbaitek esan zidan berezia izango zela gu bion arteko harremana. Segundo batzuk nahikoa izan ziren, ordea, txinparta artetik malko gazietara jauzi egiteko: “kromosoma”, “21”, “trisomia”, “anomalia”,... hitz beldurgarri haiek guztiek inoizko belarrondokorik handienak baino min handiagoa egin zidaten. Zauri handi handi bat egin zitzaidan bihotzaren erdi-erdian, oraindik ere erabat itxi gabe dagoen zauri bat. Berarekin bizitzen ikasi dut urte hauetan guztietan. Hasieran, zornea dariola egoten zen ia beti; gerora, ordea, denbora asko eman izan du lotan, arrastorik txikiena ere eman gabe.

Gizartea da oztopoak jartzen dizkiguna. Gizartea da guri begiratzeko modua aldatu behar duena. Gu, ahaleginduz gero, gai gara lortu nahi dugun hori guztia lortzeko; gai gara aktore izateko, gai gara unibertsitatera joateko, gai gara irakasle edo psikologo edo erizain edo gizarte laguntzaile izateko. Sinetsiz gero, guztia baita posible. Ahalegin eta esfortzu etengabe baten adibide garbia da gurea. Zoragarriak baikara.

Bai, seme, zoragarria zara. Urte hauetan guztietan, behin eta berriz xuxurlatu izan dizkizut bi hitz eder horiek belarri ertzero. Hasiera batean, taktika moduan: zu ondo senti zintezan, indartsu bilaka zintezan, zeure buruarengan konfiantza osoa izan zenezan, gizarte zorrotz eta koadrikulatu honi aurre egiteko gai izan zintezan. Berehala, ordea, bihotza ezin gehiagoan biguntzen zidan zuri “zoragarria zara!” esateak. Bi hitz magiko horiek esatearekin batera, bihotza uzkurtuta jartzen zitzaidan eta begiak bustitzen zitzaizkidan. Hasieran, penak eragiten zidala uste nuen, zure hauskortasunak eragiten zidala uste nuen; segituan konturatu nintzen, ordea, benetan zoragarria zinela sentitzen nuelako hunkitzen nintzela. Indar berezi bat ikusten bainuen zure begietan, jaio zinenean –bion begiradak gurutzatu ziren une magiko hartan– sumatu nuen indarrak bizirik baitzirauen. Eta, gaur, badakit onuragarria izan dela zuretzat apropos eta on ustean hasi nuen jolas hura. Egunetik egunera, zoragarriagoa baitzara.

Bai, zoragarriak gara, baina oso argi daukagu gauza bat: zoragarriak gara, norbaitzuek halakoxeak egin gaituztelako; zoragarriak gara inguruan ditugun pertsona maitagarriek etengabe borrokatu dutelako geure buruaren jabe izan gaitezen; zoragarriak gara gure aita-amek, gure aiton-amonek, eta gure anai-arrebek gudan sinetsi dutelako. Ezinbestekoa baita inori hegoak ez moztea. Orduan eta sinesgarritasun eta askatasun gehiago eman, orduan eta urrutirago helduko baikara.

Bai, seme, urrutira heldu zara, oso urrutira. Orain dela 37 urte, nekez imajinatuko nukeen horrelako momentu bat. Ametsik arraroenean ere ez nuke irudikatuko nire semea Donostiako Zinemaldian urrezko maskorra jasotzen. Amatasunaren esperientzia gozo bezain gazia bizitzen hasi nintzen garai hartan, esna amets egiten nuen guztietan, zure anaia izaten zen nire ametsetako lorpen eta ekintza arrakastatsu guztietako protagonista. Eta, zu, beti, haren ondoan agertzen zinen, haren babesean. Bera izaten zen modu batera edo bestera bizitzan urrutira heltzen zena, beti zuri laguntzeko prest agertzen zena. Hala esan baitzigun medikuak, zu izan eta denbora gutxira: “Zuena bezalako kasuetan, lagungarria izaten da – bai gurasoentzat, bai umearentzat berarentzat– etxera beste ume bat ekartzea”. Beste seme edo alaba bat izatea aholkatu ziguten, zure aparteko kromosomak eragindako mina arintze aldera. Eta halaxe egin genuen. Zu jaio eta urtebetera, zure anaia etorri zen mundu honetara, zure eta gure salbatzailea izan behar zuena. Nire erraietako semea izan arren, urte hauetan guztietan ezin konta ahala bider gorrotatu izan dudan semea. Guraso batzuen amesgaiztorik itsusienean agertzen diren nahigabe eta atsekabeak eman dizkigun semea. Erdi lotan dagoen zure zauriaren ondo-ondoan, etengabe zornea darion zauri bat eragin didan semea. Ama batek sufritzeko daukan gaitasunaren marra behin eta berriz gaingitu duen semea. Baina, bai, gaur, badakit nire ametsetan pertsonaiak trukatu zeudela. Zu izan zara urrutira heldu dena, zu izan zara 46 kromosoma dituen zure anaiari lagundu diona droga gaiztoak eraman duen zulo beltzetik ateratzen. Eta, bai, gaur badakit zu izango zarela gaixoa izaten jarraituko duen 46 kromosomadun anaiari lagunduko diona, gu ez gaudenean. Zu baitzara gu guztion salbatzailea. Samin gaizto batean itotzen ari den ama batentzat, ez dago zure besarkada goxoak baino sendabide ederragorik eta eraginkorragorik. Agian, zu adina aldiz besarkatu izan banu bera eta zuri adina aldiz esan izan banizkio gu bion arteko bi hitz magikoak, ez genukeen ez berak, ez guk horrenbeste sufrituko.

Gaur, lotsatuta nago neure buruarekin, gizarteko aurreiritzi faltsuen menpe bizi izan bainaiz urte askotan zehar. Zuk ireki dizkidazu begiak, zuk erakutsi didazu sinetsiz gero muga guztiak gaindi daitezkeela. Zure heldutasunak aho-zabalik uzten nau oraindik ere. Bizi izan dugun egoera lazgarriak eramango zintuen, agian, heldua izatera. Txarretik ere beti irabazten baita zerbait. Harro nago, seme, zaren bezalakoa zarelako.

Nik zorte ikaragarria izan dut. Ez dizkidate hegoak moztu. Askatasunean hezi naute. Nire izatearen zirrikitu guztiei zukua ateratzen erakutsi didate. Nigan sinetsi baitute. Eta, gaur, naizena naiz, beraiei esker. Zuei esker. Eta, batez ere, zuri esker. Zuri eskaini nahi dizut eskuetan daukadan urrezko maskor hau. Beste inork baino gehiago merezi duzulako. Zure eta nire arteko harremana berezia delako, magikoa delako. Begirada soil batekin elkar ulertzen dugulako. Nire izatearen zati garrantzitsu bat zarelako. Etsita eta hondoa jota egon zarenean ere, irribarre zoragarri batekin hartu nauzulako. Zoragarria izaten irakatsi didazulako. Zoragarria naizela sinestarazi didazulako. Niretzat dena zarelako. Horregatik guztiagatik, munduaren aurrean ozenki eta harro esan nahi dizut, ama: ZORAGARRIA ZARA!

Bihotza ezin gehiagoan bigundu zait, eta begiak busti zaizkit. Elkarri begira gaude, ezpainetan irribarre zabal bat dugula. Ezaguna egiten zaigu une hau. 37 urte luze igaro dira, baina orduan bezain txinpartatsua eta magikoa izaten jarraitzen du gu bion arteko begiradak. Txalo-zaparradaren burrunba dator berriz ere nire belarrietara. Txalo-zaparrada indartsua eta amaigabea. Belaunak ahul sentitzen ditut, aztoratuegi bainago, baina barnean dudan indar guztia aterako dut, eta zutik jarriko naiz zuri behar den bezala txalo egiteko. Lortu dut. Zutik nago, jende guztia bezala. Nire gainean sumatzen ditut aretoko jendearen begiradak, baita estatu osotik eta nazioartetik etorri diren kazetarien kamera zaratatsuak ere. Baina berdin dit. Gaur, ez nau ezerk beldurtzen. Inork eta ezerk ezingo baitu itzali zu eta ni bizitzen ari garen momentu magiko hau, gu bion arteko begirada txinpartatsu hau.

Badakit ulertu didazula, seme: bai, betiko itxi zait duela 37 urte bihotzaren erdi-erdian egin zitzaidan zauri zentzugabea. Zoragarria zara!